

Gertatzen ari da arratsaldero

lauretan

URUMEAKO
Kronika

2017/09/18



Idatzi bilaketa hitza(k)

Bilatu

HERNANI

GOIZUETA

ARANO

EREÑOTZU

ASTIGARRAGA

Hemeroteka

Multimedia

Publizitatea

Bazkide egin

KOMUNITATEA



Sagardoaren Lurraldeko sagardogileak, aurtengo sagardo sagarraren heldutasunaren aurkezpenean.

[albisteak](#)//XVII. SAGAR UZTA JAIA

Pasa den urtearekin alderatuta, aurreratuta dator aurten sagarraren heldutasuna

Uzta sasoian egonda, Sagardoaren Lurraldeko sagardogileek 2017ko sagardo sagarraren heldutasunaren aurkezpena egin dute. Bestalde, XVII. Sagar Uzta jaiaren baitan egingo diren jardueren berri ere eman dute.

ASTIGARRAGA

2017/09/16 00:00 Larunbata

Hamazazpigarren edizioa beteko du Sagar Uztak aurten, eta urtero bezala, sagardotegietako dolareetako lanen



LEKAIXOKA!
KILOMETROAK 2017 OÑATI
IRAILAREN 24AN



 PDF

HERNANI

Irailak 18

ESKELAK

Agenda Bateratua

[//Erabiltzaileak](#)

hasiera ospatuko du; azarora bitartean luzatuko den lana.

Sagardo sagarraren uzta historikoa

Fruitel eta Sagardoaren Lurraldeak eskatutako aurtengo uztako XVII. sagardo sagarraren heldutasunaren txostenaren arabera, ekoizpena altua izango da. Hau da, uzta historikoa izango da aurtengoa.

Horrez gain, aurreko urtearekin alderatuta, sagarraren heldutasuna aurreratuta da-tor, eta dagoeneko sagardotegiak hasi dira sagarrak bildu eta muztioaren elaborazio lanekin. Bestalde, aurtengo sagar barietateen artean ezberdintasunak nabarmenak dira; sagastietan, aldiz, ez da hain nabarmena, nahiz eta geografikoki kokapen ezberdinak izan.

Ekoizpena altua izango da, hau da, uzta historikoa izango da aurtengoa.


Sagarren egoera, aztergai

Azken urteetan bezala, sagarraren egoera zein zen jakin ahal izateko kontrola egin zen iraila hasieran Gipuzkoako sagasti batzuetan. Esan bezala, horretarako Gipuzkoako hainbat sagasti jarraitu dira, eta 14 sagar barietate kontrolatu: Aritza, Errezila, Gezamina, Goikoetxe, Manttoni, Moko, Mozolua, Patzolua, Txalaka, Udare Marroi, Urdin, Urtebi Haundi, Urtebi Txiki eta Verde Agria.

Azukre mailari dagokionez, pasa den urtean bezala, aurtengoak batz bestea 11,7 °Brix ditu. Almidoiaren erregresioa, bestalde, 3,8ko indizean dago; azken 5 urteetako altuena da. Eta heldutasun datuak ikusita, 3 sagar barietate talde ikus daitezke: aurreratuenak dira Patzolua, Txalaka, Gezamina eta Mozolua; erdikoak, berriz, Aritza, Urtebi Txiki, Manttoni, Urtebi Haundi, Urdin eta Verde Agria; eta, atzeratuenak, Errezila, Moko eta Udare Marroi.

Sagarraren jaia, Astigarragan

Ospakizunei dagokienez, XVII. Sagar Uzta jaiaren jarduera nagusiak irailaren 21, 23 eta 24an egingo dira, jende guztiarentzako prestaturiko eta sagarraren eta



Puri-Purian

SOS Errefuxiatuaken furgoneta ... (1)

Urumeako gida



Komertzio bat bilatu

Bilatu



sagardoaren kulturaren oinarrituriko jarduerekin. Ostegunean hasi, eta igandera bitarte, beraz, Astigarragan izango dugu zer egin eta zer dastatua. Tolare lanak, esate baterako, igandean egingo dira, Foru Plazan, Goldea Herri Kirol Batzordearen eskutik. Horrenbestez, aurten ere haur nahiz gurasoek aukera paregabea izango dute aurtengo lehen sagar muztioa egiteko. Goizeko 11:00etan hasi eta eguerdiko 13:00ak bitarte, kizkiarekin sagarrak bildu beharko dituzte, zakuetan sartu, lera garraiatu, ganbarara igo eta matxakatik pasa ondoren tolarean zanpatuko dira sagarrak. Astigarragako herriak sagarra eta sagardoarekin duen lotura ikusita, herritarren parte-hartzea oso garrantzitsua da. Ondorioz, jarduera horietan parte hartzeko deia egin nahi die Goldea Herri kirol Batzordeak herriko haur eta familiei. Hori bai, kontuan hartu behar da haurrek 7 urtetik gora izan behar dutela, eta gurasoak ere inguruan ibili behar dutela. Parte hartu nahi duenak, beraz, izena eman behar du Ikatza tabernan egongo den zerrendan, irailaren 22a baino lehen.

EGITARAUA

Osteguna, Irailak 21

19:00-21:00 PINTXO-POTEA

Astigarragako tabernetan. Sagarren eratorriekin egindako pintxoak emango dira.

Larunbata, Irailak 23

**09:30 SAGAR MOTAK EZAGUTUZ*,
Santiagomendiko Sagardo Bidean zeharko mendi-buelta familian.**

**10:00 IV. SAGARDOBIDE ERRONKA,
Santiagomendin zeharko errelebo proba.**

**11:00 Familientzako
APAINKETA TAILERRA SAGARREKIN*.**

16:00-19:00 GARBIBAI AFARI-MERIENDA*:

- Zutikako arrauna Urumea ibaian Donostiatik



Txirrita tailerra

Ekarri zure autoa gure tailerrera

Iragarki merkeak

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... (Agustindarren plaza, 4)

Telefonoa: 943332894

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna.

Telefonoa: 616886660

gur



**Oinarin
Eguna**

GOIENA



**Altsasu
gehiago**

Astigarragara.

**- Garbibai erakusketa eta afari-merienda
girotua Gartziategi baserri inguruan.**

Igandea, Irailak 24

SAGARRAREN JAIA Foru enparantzan.

**09:30 Musika Eskolako txistu ikasleen eta
Txirriskla Txistulari Taldearen diana.**

10:30-12:00 Sagar postre lehiaketa.

Postreak frontoian entregatu behar dira.

10:30-12:00 X. Sagar Uzta Argazki Rally

Digitalean* izen-emateak plazan.

11:00-14:00 Sagarraren azoka:

**- Sagarraren erakusketa, dastaketa eta
salmenta.**

- Sagardo eta muztio dastaketa.

- Saski, txertaketa eta abarren erakustaldiak.

- Herriko baserritarren produktuen salmenta.

- Trikitilariak herrian zehar.

**11:00 Muztioaren elaborazioa: sagar biltzea,
jotzea eta zanpatzea bertaratutako familien
laguntzarekin.**

12:30 Sagar dantza eta kirikoketa.

**13:00 Txalaparta eta 2017 uztako lehen
muztioaren topa herrikoia.**

*** Izen-emateak: 943 55 05**

75; info@sagardoarenlurraldea.eus.

ARGAZKIAK



ORAIL
gur



**Bio-zie
indartz
Core e**

 GUREA



Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin eg

[Tweets por @KronikaNet](#)

[www.](#)



Z

Zure domein



[Txiokatu](#)



IRUZKINAK

Sentitzen dugu, erabiltzen ari zaren nabigatzailea ez da bateragarria bateragarria:

- [Firefox](#)
- [Chrome](#)
- [Internet Explorer 11+](#)
- [Safari](#)

Gaur


18°

13°

Bihar


19°

12°

Etzi


20°

9°

[Aemet](#) eskaintako datuak

Azken argazkiak



Euskal Jaiak 2017



Latsunbeberri-Marielut...



Portuko Jaiak 2017



Ergobiako Jaiak 2017



Goizuetako Fiestak - A...



Goizuetako Fiestak - A...

Azken bideoak



Harrapazka



Tolosa ahizpak txapeldun, Zestoako ...




«Urduri egongo naiz; hainbeste ...



Azkeneko bideoak, web orrian



Azkeneko bideoak, web orrian



Azkeneko bideoak, web orrian

ARGITARATZAILEA



ZEIN GARA



KONTAKTUA

Larramendi kalea 11 - Hernani 20120
Telefona: 943 33 08 99 / 688 660 714
E-maila: kronika@kronika.eus
astigarraga@kronika.eus
urumea@kronika.eus



LAGUNTZAILEAK

